




ALBOAN
ONG · Jesuita · Fundazioa



GATAZKARIK
GABEKO
TEKNOLOGIA



Kordobako hegoaldeko (Kolonbia) urre-meatzek eta tokiko erkidegoak, El Alacrán meatzearen kasua



Laguntzaileak



JUSTICIA EN MINERÍA
Una Red Jesuita de incidencia Global

Finantzaileak



Aurkibidea

| | |
|--|-----------|
| Laburpen exekutiboa | 3 |
| Meatzeen inguruko politikaren eta arautegiaren testuingurua Kolonbian | 6 |
| Kolonbia: erauzketa sustatzeak, gatazkak indartu eta sakontzen ditu | 6 |
| Meatzaritza arautzen duen esparru orokorra Kolonbian | 8 |
| Meatzaritza informazioa eta formalizazioa | 9 |
| Urrezko meatzearen erregulazioa | 11 |
| Urre-meatzaritza kriminala | 12 |
| Talde etnikoen eskubideak eta meatze-erauzketa | 13 |
| Kordobako Hegoaldeko lurralde testuinguru laburra | 14 |
| Alto San Jorge: meatzaritzak zehartutako eremu gatazkatsua | 15 |
| Azpieskualdeko meatzaritza | 17 |
| Urre meatzaritza | 18 |
| El Alacrán meatzea | 19 |
| Meatzaritza motak El Alacránen | 20 |
| <i>Artisau meatzaritza</i> | 20 |
| <i>Iraupeneko meatzaritza tradizionala</i> | 21 |
| <i>Urre meatzaritza kriminala</i> | 23 |
| <i>Eskala handiko meatzaritza</i> | 23 |
| Alto San Jorgeko Zenú herria urre meatzaritzaren aurrean | 24 |
| Ondorio gisa: El Alacrán, urre erauzketaren inguruko gorabeherak eta gatazkak | 26 |
| Erreferentziak | 30 |
| Eranskina. PATRen eraikuntzan meatzaritzari buruzko lehenetsitako Ekimenak | 34 |

Izenburua: Kordobako hegoaldeko (Kolonbia) urre-meatzeak eta tokiko erkidegoak, El Alacrán meatzearen kasua.

© **ALBOAN** Fundazioa

© CINEP/PPP

Egileak: Javier Lautaro Medina Bernal, Tatiana Cuenca Castelblanco, Catalina Serrano Pérez, Lorena Carrillo González

Data: 2019ko azaroa

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Imprimaketa: Lankopi S.A.L.

Lege-gordailua: BI-02477-2019

Azaleko argazkia: Guillermo Otano

Barruko argazkiak: Javier Lautaro, Guillermo Otano

Laburpen exekutiboa

Kolonbiako urre-meatzaritzak iritzi publikoaren arreta erakarri du azken urteetan, bai etxeko mailan, bai nazioarteko mailan. Azken hamarkadan, garapen plan nazionaletan, esportatzeko aukerarik handiena duen hiru mineraletako bat gisa jasotzen da urrea Kolonbian, ikatza eta petrolioarekin batera. Nazioarteko merkatuetan prezioak duen egonkortasunari esker, oso erakargarria da atzerriko inbertitzaileentzat, baina baita elite nazional eta eskualdeko eliteentzat ere. Izan ere, irabazizko negoziotzat hartzeaz gain, hazkunde ekonomikorako funtsezko eragilea ere bada haientzat metal preziatua.

Hala ere, urrearen merkatuaren errealitatea oso bestelakoa da erauzketa eremuetan bizi diren erkidegoen ikuspegitik. Estatistika ofizialen atzetik, gatazka dinamika konplexuak daude, eta okerrera egiteko arriskuan daude beti. Eskala txikiko urre-ustiapenak ugariak diren lekuetan, askotan, desberdintasun eta pobrezia maila handiak daude, eta horrek, segurtasun falta eta eragile armatuak egotea ekartzen du. Alde batetik, ase gabeko oinarritzko premiek, eta bestetik, sare kriminal antolatuen egoteak, legez kontrako ekonomiak sortzea sustatzen du. Diotenez, urre-ekoizpen nazionalaren % 80a, jarduteko legezko baimenik ez duten ustiapenetatik dator. Hala ere, zalantza jatorriko urre hori, legezko zirkuituetan sartzen amaitzen du, portatzeko, trazabilitate sistema fidagarriak ezartzeko zailtasunengatik.


Ikerketa honetan, gobernuak eta FARC-EPek 2016ko azaroan Bake Akordioak sinatu ondoren, urre-meatzaritzak Kolonbian dituen arazo eta erronka nagusietako batzuk aztertzen dira. Kasu-azterketa baten bidez, El Alacráneko urre-meatzearena hain zuzen ere, Kordobako hegoaldeko geografia politiko konplexuaren azterketa zehatza egiten du, meatze-ustiategi hori eskualde horretan dagoelako. Landa-lurraldea da, tradizioz nekazaritza eta abeltzaintzako izan dena. Azken hamarkadan nabarmen zabaldu da meatze-jarduera, alde batetik, artisau-ustiategi txikien eskutik, urrearen erauzketa nolabaiteko mekanizazio-maila eskuratzen joan direnak, eta bestetik, aire zabaleko meatze-ustiategi handien eskutik, hala nola Cerro Matosokoa, ferronikela erauzten duena. Beste adibide bat Minerales Córdoba S.A. konpainiak datozen urteetan ireki nahi duena da. Horren helburua, gaur egun El Alacrán meatzea kokatuta dagoen lurraldean dauden kobre-erreserbak ustiatzea da.

Ikerketa bi zatitan banatzen da. Lehen zatian, meatze-politikak eta jarduera hori arautzen duten arautegi-garapenak aztertzen dira. Hor, lege-esparruen kontraesanei eta urre-ustiapen informalak formalizatzea ekartzen dituen erronkei batik bat erreparatu zaie. Bigarren zatian, Kordobako hegoaldean dauden meatze-mota desberdinak aztertzen dira, baina bertako erkidegoetan dituen eraginetan nagusiki jartzen da arreta, Alto San Jorgeko babeslekuko Zenú herri indigenan bereziki. Amaitzeko, ondorio gisa, eskualdeko gatazka-gune nagusiak aztertu eta horiek ebazteko egon daitezkeen aukerak azaltzen dira.

Ikerketa Bakerako Ikerketa eta Hezkuntza Zentroak (CINEP/PPP) egin du, **ALBOAN** Fundazioak eskatuta, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren funtsekin. Bi erakundeak Gatazkarik Gabeko Teknologia kanpainan lankidetzan aritzen dira, eta Jesusen Lagundiak sustatutako Justice in Mining eragin orokorreko sarearen barruan daude. Baterako lan honen esfortzuek eskualdean bake iraunkorra ezartzen laguntzea espero dugu.



Santa Marta
Rioacha
Barranquilla
La Guajira
Atlántico
Magdalena
Cartagena
Valledupar
Cesar
Sucre
Sincedejo
Monteria
Bolívar
Santander
Santander de
Cucuta
Cucuta
Bucaramanga
Arauca
Arauca
Antioquia
Santander
Boyacá
Casanare
Puerto Carreno
Quibdo
Medellín
Manizales
Boyacá
Yopal
Yopal
Risaralda
Caldas
Tunja
Cundinamarca
Vichada
Pereira
Armenia
Ibague
Bogotá
Villavicencio
Inirida
Cauca
Neiva
Meta
Guainía
Popayan
Huila
San José del Guaviare
Guaviare
Nariño
Pasto
Mocoa
Putumayo
Caquetá
Vaupés
Mitu
Amazonas
Leticia



Meatzeen inguruko politikaren eta arautegiaren testuingurua Kolonbian

Kolonbia: erauzketa sustatzeak, gatazkak indartu eta sakontzen ditu

Laurogeita hamarreko hamarkadatik erauzketa-garapenaren estiloa berrituz joan da Latino-amerikan. Eskualdean egondako gobernuak, oro har, zenbait justifikaziotekin, lehen mailako eredu esportatzaileari eutsi diote, sustrai eta garapen historikoak dituen (García Velandia, 2015a, 17-19. or.). Erauzketari irekitzeko prozesu honi esker, eredu neoliberala finkatu egin da duela hiru hamarkadatik Latinoamerikako eskualdean. Eredu horren barruan, Estatuak uko egiten dio inbertitzeko eginkizunari, eta kapital pribatu, nazional eta nazioarteko berriak eragin handiagoa izaten hasten dira, presio eta negoziazio politiko batzuen bidez, arautegian eta garapen nazionalaren inguruko erabakien hartzean¹.

Egiaztatu da eredu horrek, gaur egun, lehen bezala, ingurumen eta gizarte eraginak dituela lurraldeetan, eta eragindako biztanleen bizitza-baldintzek okerrera egitea ekartzen duela, norberaren eta taldearen funtsezko hainbat eskubide masiboki eta sistematiko-ki urratuz, nagusiki bizitza duinarekin eta erkidegoen antolaketa, mobilizazio eta partaidetzarekin zerikusia dutenak. Ondorio horiek eragin bereziak dituzte emakumeen eskubideetan, emakume, nerabe eta nesken aurkako patriarkaren indarkeria areagotzeaz gain, genero-desberdintasuna handiagotu ere egiten dutelako (Zenbait erakunde, 2016; Carvajal, 2016, 31-32 or.).

¹ Zenbait egilerentzat, hala nola Pardorentzat (2018), nazioz gairako gremio-aginteez egiten duten Estatuaren kooptazioa da, hala ere, garrantzitsua da ulertzea agintari horiek bertako eta eskualdeko aginteekin nahasten direla testuinguru bakoitzean (McKay & Golque, 2016) eta eremu bakoitzaren gatazka historikoekin.

Mende honen hasierarako, 2006ko krisi ekonomikoa ere gertatu zela², garaiko gobernuak gero eta nazioarteko kapital gehiago sartzeko atea ireki zuen, mineralak eskala handian erauzteko eta finantza-merkatu orokorretan komertzializatzeko. Herrialde meatzari gisa kanpoaldean egindako sustapen-lana izan zen. Horrez gain, inbertitzeko eta finkatzeko kanalak malgutu ziren, eta meatzaritza eskualde gehienetan hedatu eta sakondu zen. Azken hori, biztanleak -nekazariak, talde etnikoak eta hiriko biztanleak- eta ekosistema naturalak, gatazka armatuko dinamikak eta kasu askotan, bertako meatzaritza-ahalduntze kasuak (non hainbat gatazka sortu eta finkatzen diren) dauden lurraldeetan gertatu da eta gertatzen da. Gatazka horiek, herritarren [eta beren eskubideen] interes orokorraren eta xede gisa Estatuaren errenta nahia eta enpresa nazional eta atzeritar handien interes ekonomikoa asetzea duen meatze-politika baten arteko talkaren erakusgarri onak dira (Pardo, 2013, 194. or.).

Gaur egungo gobernuak errenta-ereduari eustea proposatu du, meatze-proiektu eta proiektu energetikoen onurek "behar handietarako" irtenbideak geldiaraziko dituztela arrazoituz. Horretarako, ekoizpena sustatzeko eta "ingurumenari begira, arduratsua, lehiakorra eta baliabide sortzailea den jarduerari" batean oinarrituz, azterketa handitzeko baldintzak sortzea proposatu du (Plangintzako

² XXI. mendearen hasieratik zenbait krisi gertatu edo berriro gertatu dira maila orokorrean: elikagaiena, energetikoa eta erregaiena, klimatikoa eta finantzarioa. Eredua zalantzan jarri gabe, horiei erantzuteko, urritasun imaginario bat ezartzen da, eta haren barruan, lurra eta baliabide naturalak behar bat bihurtzen dira kapitalismo aurreraturako, eta hegoaldeko herrialde orokorrek, inbertsio berrietarako gune izatera pasatzen dira, kapitalismo orokorrean pilaketa primitiboko prozesuak berriro eginez (Sauer & Borrás, 2016). Funtsean, merkatu kapitalisten harremanen eta hondakinen etengabeko pilatze prozesuaren hedapena da (Harvey, 2003). Horren ondorioz, inbertsio edo kapitala mugitzeko aukera berri eta seguruagoak bilatzen dira. Horrez gain, inbertitzaileak (pentsio-funtsak eta finantza-sektoreko enpresak) dibertsifikatzen dira).

Sail Nazionala –DNP–, 2018, 698. or.)³. Hori, jarduera horien onurak lurraldeek beren gain hartzen dituzten gizarte- eta ingurumen-kostuekin ez datozela bat onartzen duen arren. Kostuek, lurraldeko erakundeek kudeatzeko eta arintzeko dituzten gaitasunak gaintitzen dituzte, eta industria honen ingurumen-eraginek tentsioak eragiten dituzte (DNP, 2018, 701. or.). Baieztapen horiek, hots, meatzaritzaren ondoriozko ingurumen eraginak garapenaren legez kontraktasunak ekartzen dituela, eta ez jarduerak berak, narratiba ofizialaren eta enpresa pribatuaren zatitzat hartu behar dira. Halaber, azken hiletan, *fracking* teknika erabiltzeko atea ireki dute, konbentzionalak ez diren ustiategiak ustiatzeko.

Erauzketa-mugimendu honen aurrean⁴ hainbat gizarte mobilizazio egin dira herrialdean, eta ekintza juridikoez ere baliatu dira, lurraldea meatze eta hidrokarburoen erauzketaren aurka defendatzeko estrategia gisa. Halaber, zuzenean Konstituzio Politikora jo da, eta herritarren partaidetza-mekanismoetara eta udal kontzejuetarako ezarritako eginkizunetara bereziki, tokiko esparrutik, herri kontsulten bidez, erauzketa-eredua lehenesten duen politika nazionala gelditzeko (Negrete, 2017, 5. or.). Gaur

3 2017. urtearen amaierarako, Kolonbian 8.375 meatze-titulu emanda zeuden, eta horiek, ustiatzen ari zen lurralde nazionalaren azaleraren % 2,67, eraiki eta muntatzen ari zenaren % 0,66 eta aztertzen ari zenaren % 0,23 ekartzen zuten. Meatze-politikaren barruan, zenbait mineral, hala nola urrea, zilarra, kobrea, burdina eta esmeraldak, estrategikotzat hartu dira (Meatzaritzako Agentzia Nazionala –ANM–, 2018a, 10. or.).

4 Kolonbiaren aldeko Foro Nazionalaren datuen arabera (2017), tituluen ematean gertatutako igoera nabaria da, izan ere, 2.711 titulutik 9.602 titulura pasa dira 2004tik 2015. urtera. Halaber, Meatze Garapenerako Plan Nazionalan, 2006an kaleratutako 2019. urteko ikuspegiari, pixkanaka meatze-industria bultzatzea proposatu zen, eta helburu gisa, ikatz erauzketa bikoiztea eta metal prezia- tuena laukoiztea (Meatze Plangintza Energetikoko Unitatea –UPME–, 2006, 77-78. or.) ezarri zuten. Dokumentu honetan, bertako erkidegoetako interesak nazio eta nazioarteko interesekin bateratzeko beharra adierazten da, enpleguari eta baliabideei dagokienez, meatzaritzak izan ditzakeen onurei lehentasuna emanaz (UPME, 2006, 69. or.).

egun, ingurumen gatazkekin lotutako mobilizazio horiek, tokiko eta nazioko garapenaren, lurraldeko ingurumen antolamenduaren, ezagutza ekoizpenaren eta herritarren partaidetzaren⁵, definizioak eztabaidatzeko ahalmen handiko gizarte agertokia ekartzen dute, Estatu ez delako gai eginkizunak betetzeko, erkidegoen eskubideak bermatzen dituen erauzketarena ez den beste eredu bat sortzeko. Hala ere, erkidegoek sortzen dituzten lurraldeko antolamendu-proposamenek gizarte lidergoen eta oinarriko erakundeen aurkako indarkeria-testuinguruei ere aurre egiten diete.

Hori gertatzen den bitartean, Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileekin (FARC-EP) 2016ko azaroan sinatutako Bake Akordioaren neurriak pixkanaka txertatzen dira, eta askotan, baita gelditu ere. Neurri horiek, lurraldeko bakea sortzeko eta landa-biztanle behartsuen eskubideak bermatzeko sinatu ziren. Besteak beste, herrialdeko gizarte-gatazken jatorriari eta arrazoiari buruz gogoeta egitea ekartzen du, izan ere, horien ondorioz desberdintasuna gertatzen da lurra eskuratzeko aukeran, eta lurraldearen gizarte eta ingurumen antolamendua oso urria da. Bake Akordioak zuzenean meatzaritza aipatzen ez badu ere (legez kontrako ekonomia-moduen aurkako borrokan bakarrik), horien artean meatzaritza kriminala dagoela -ohiko artisaumeatzaritza halakotzat ezin dela hartu ohartaraziz-, tokiko erkidegoen partaidetza handiarekin, lurraldearen antolamenduan aurrera egin behar dela eta ingurumena babesteko neurriak hartu behar direla nabarmenki aipatzen da.

5 Gatazka horrek arlo judizialean ere eragina izan du: 2010. eta 2017. urteen artean 25 epai eman zituen Konstituzio Gorteak, eta 11 Estatu Kontseiluak (Kolonbiaren aldeko Foro Nazionala, 2017). Horiek, meatze xedapen juridikoei herritarren partaidetzarako eskubideari, Estatuaren lurralde mailen arteko eskumenei, eta gizarte, ingurumen, ekonomia eta kultura eraginei aurre egiteko moduen inguruan egondako tentsioak erakusten dute, batik bat, pertsona, erkidego, meatzaritza ekosistema eta hidrokarburoen erauzketan. Konstituzio Gorteak ezarritakoaren arabera, 2017ko SU-133 epaian: "konstituzio esparru berri horren testuinguruan, erauzketa-industriaren eraginaren inguruko eztabaidak agertoki judizialetera eramane ziren".

Meatzaritza arautzen duen esparru orokorra Kolonbian

Meatzaritzaren inguruko arautegiak Kolonbian izan duen bilakaera historikoan, hirurogeita hamarreko hamarkadatik bereziki, meatze-erazketa positibotzat jotzen da herrialdearen garapen ekonomikorako. Horretan oinarrituz, irekitze ekonomikoko prozesu bat hasten da sektorean hurrengo bi hamarkadetan. Aldi berean eskubide diferentzialak aintzatesteari aukera ematen dioten prozesuak gertatu ziren, laurogeiko hamarkadaren amaieran handia izan zen gizarte-mobilizazio prozesu baten gailur gisa: 1991ko Konstituzio Politikoarekin nazioaren etnia eta kultura anitzaren izaera aintzatesi zen, eta zenbait lege ezarri ziren, desberdintasun etnikorako eskubidea bermatzearen, tokiko partaidetza politikoaren eta herrialdeko ingurumena erregulatu eta babes-tearen alde egiten dutenak⁶ (García Velandia, 2015b).

Zorupea Estatuaren jabetzat ezarri zuen Meatze Kodea (2001eko 685. Legea) eman zen 2001. urtean (Konstituzio Gortearen arabera, lurraldeko erakunde guztiak, eta ez nazionalak bakarrik, barne hartzen ditu), eta aldi berean, Meatze Titulua ezarri zuen tresna nagusi gisa. Horren bidez, Estatuak jabea den aztarnategiak aztertu eta ustiatzeko eskubidea ematen da, "lehenengoa denboran, lehenengoa eskubidean" izeneko printzipioari jarraituz. Horrek, lehenetsuna ematen dio lehen eskatzaileari besteen gainean, horretarako ezarritako baldintzak betetzen baditu⁷. Lege horren inguruan adierazi dute meatze-sektorea arautzen zuten jarraibideak nabarmen aldatzeaz gain, bateraezintasun larriak ere badituela 1991ko Konstituzioarekin: Zuzenbideko Gizarte Estatu

6 1993ko 70. legea: biztanle afro-kolonbiarren eskubideak aintzatestea; 1993ko 99. Legea: ingurumenaren babesari buruzkoa; 1997ko 388. Legea: lurralde antolamenduari buruzkoa, besteak beste. Konstituzio Gortearen jurisprudentzian aurrerakoia izan zen arautegi garapena.

7 Meatze-emakidako kontratuarekin bat datorren meatze tituluak fase guztiak barne hartzen ditu, ustiatzetik, meatzea itxi edo utzi arte (2001eko 685 Legearen 14. eta 45. artikulua).



Meatze instalazioetarako sarbidearen kartela, El Alacrán meatzea.

gutxiesten du, Estatuaren eginkizuna mugatu eta enpresaburuaren rola kentzen duelako. Bestalde, Estatuaren egitura deszentralizatu apurtzen du, lurraldeko erakundeek beren meatze-antolamendua ezartzea debekatzen duelako. Bestalde, bere arauak ezartzen ditu ingurumen-erabilerarako, Kolonbiako Estatuak, eskumenez, egin behar duen sektorearen arauen gainetik (Martínez; Peña; Calle & Velásquez, 2013, p.11-15).

Konstituzio Gorteak (2017a) adierazi du 2001eko Meatze Kodeak ezarritako erakunde-esparruaren barruan, meatzaritza "gizarte, kultura eta ingurumen gatazka iturri bihurtu dela". Horrek harreman zuzena du geroago gertatu ziren meatze-tituluen eskaera ugariekin, eta baita ustelkeria arazo larriekin eta meatze-kontratuaren gorabeherarekin ere. Horrek erakusten du Estatuak porrot egin zuela natura-baliabideen administratzaile gisa, bereziki titulazio, kontrol eta fiskalizazio lanetan (Pardo, 2013, 192. or.).

Ingurumen-arloan, Kodeak ezartzen du ingurumenaren osotasuna eta gozatzea, nahiz berriztagarriak ez diren natura-baliabideak modu egokian erabiltzeko betebeharra, "bateragarriak" direla meatze-baliabideen aprobetxamenduan "zentsuz" sustatu eta garatzearekin, ekonomia nazionalaren eta gizarte-ongizatea

ren funtsezko zati gisa (194. artikulua). Halaber, ingurumen-lizentzia emateko, interesdunak, Meatzaritza Obra eta Lanen Programarekin batera, Ingurumen Eraginaren Azterlana ere entregatu behar du⁸ (204. artikulua). Horrek, hasiera batean, meatze-ustiapenerako emakidarik ez dela egongo ekartzen du, baldintza hori ez bada betetzen, ez ordea azterketarako, berez, lurralde batean esku-hartze fisikoa ekartzen duelako. Ikusten denez, partikularrek nagusiki egiten dituzten jarduerak dira, eta ez erakunde publikoek, ez eta talde teknikoek ere, izan ere, urrats honetan, erkidegoen parte-hartzea berariaz barne hartzen du (Negrete, 2013, 39. or.), nahiz eta subjektu kolektibo hauek berme konstituzionalak izan.

2010. urterako 1382 Legea eman zen, Meatze Kodea berritzeko helburuarekin, batik bat meatzaritza kanpoan uzten den eremuen definizioari dagokionez, hala nola basamortu eta Ramsar hezeguneak⁹, baita meatze-formalizaziorako prozedurak ere, besteak beste. Lege hau konstituzioaren kontraktatzat hartu du zuten geroago, alde aurretik talde etnikoei kontsultarik ez zitelako egin. Konstituzio Gorteak, 2011ko C-366 epaian, arau hori, meatze-jardueraren kontzeptua berriro formulatzen zuenez, lurralde indigenetan eta ondorengo afrikarrei aplikatu ahal zitzaizela, eta meatze-baliabideen ustiapena ezinbestekoa denez aniztasun etniko eta kulturala babesteko, eskubide hori baliatu behar izan zela (García Velandia, 2015b, 14. or.).

8 Azterlan horrek, besteak beste hauek jaso behar ditu: ustiapen obra eta lanen toki edo eskualdeko ingurune fisiko, sozial eta ekonomikoa deskribatzeko behar diren elementu, informazio, datu eta gomendioak; obra eta lan horien eraginak, dagoen ebaluazioarekin; eragin horiek prebenitzeko, arintzeko, zuzentzeko eta orekatzeko planak; lanak uzteko eta ixteko zer neurri aplikatuko diren, eta erabilera-plana; beharrezko inbertsioak eta aipatutako neurrien jarraipen-sistemak.

9 Ramsar hezeguneak dira herrialde bakoitzak Nazioarteko Garrantziko Hezeguneen Zerrendan barne hartzen dituenak, Nazioarteko Garrantziko Hezeguneei buruzko Konbentzioarekin bat. Berziki Uretako Hegaztien Habitat gisa. Kolonbian 7 toki barne hartzen dira, guztira 754,148 hektareako hedadura barne hartzen dutenak.

Konstituzioaren kontraktatzat hartu arren, Gorteak bi urtetan indarrean jarraitzea agindu zuen, ingurumenean ondorio kaltegarriak ez eragiteko, ekosistema estrategikoak babesten zituelako. Epe horretan, Gobernuak beste lege bat egin behar zuen talde etnikoekin kontsultatutako sektorerako (Rubiano, 2012, 1-2 or.). Hala ere, hori ez da gertatu, beraz, gaur egun, indarrean dagoen arau nagusia 2001eko 685 Legea da, 2015. urtean Garapen Plan Nazionalaren Legearekin (1753. Legea) egindako aldaketekin, esaterako, meatzetik, Ramsar hezeguneak eta estrategikotzat hartzen diren beste ekosistema batzuetan ekoizpen-jarduerak murrizteko aukerak kanpo uzten dituen (172. artikulua).

Meatzaritza informazioa eta formalizazioa

Bi milagarren urteko hamarkadaren hasieran bi agertoki zeuden: alde batetik, Meatzeen Kodeek Estatuak meatzaritza informala formalizatzeko prozesuetan lagundu behar zuela aitortzen zuen; baina bestetik, meatze-politika nazionala aipatzen zuten beste agiri batzuetan, eragozpenetat hartzen zen garapen iraunkorrerako, beraz, jazarpenari eta kriminalizazioari aukera ematen zitzaien (UPME, 2006). Aztertze garrantzitsu bat da une horretan ez zegoela meatzaritza informal eta legez kontrakoa meatzaritza kriminaletik bereizteko definizio argirik.

Meatzeen Kodearen barruan, legez kontrako meatzaritzat hartu zen indarreko titulurik gabe egiten den jarduera, eta bi jarduera bakarrik ezarri ziren: noizbehinkako meatzaritza, eskuzko baliabideen eta barekeoaren bidez egindakoa¹⁰. Harrezkero fenomeno horiei buruzko definizioak handitu eta sakontzeaz gain, zenbait tratamendu lerro ere ezarri ziren. 2003.

10 Barekeoa gaur egungo lursail alubialetako biztanleen jarduera herrikoia da. Hareak eskuz garbitzen dira, makinarik edo baliabide mekanikorik erabili gabe, metal preziatuak bereizi eta biltzeko. Udaltzatuzan izena eman behar da horretan jarduteko (2001eko 685 Legearen 155. eta 156. artikulua).

urterako, Gobernu Nazionalak 2191 dekretua egin zuen, eta horren bidez, Meatzaritzako Glosario Tekniko bat ezarri zuen. Haren barruan *meatzaritz txiki* gisa definitzen da eskuz egiten dena, erauzitako materiala gehienez, 250 tonakoa izanda, urteko; *ustiapen tradizionalak*, auzoko erkidegoek tradizioz ustiatutako aztarnategiak gisa, hornitzeko iturri bakar gisa; eta *Erreserba Bereziko Eremuak*, denboraldi batean kanpoko erauzketa proposamenak onartzen ez diren ustiapen tradizionalakoak.

Orduan, meatzaritz txiki eta ertainean aritzen diren biztanleentzako aintzatespen bide berria ireki zen, bizirauteko baliabide gisa, eta jarduera horren inguruan berariazko lurralde-tasunak eraiki dituzte. Horrela, 2016ko 1666 Dekretuak honela definitzen du biziraupeneko meatzaritz:

pertsona naturalek edo pertsona taldeek garatutako meatze-jarduera da, eta arlo hauetan aritzen dira: ibaietako hareak eta lokatzak aire zabalean erauzten eta biltzen, besteak beste, eraikuntza, buztin, metal preziatu, harri preziatu eta erdipreziatuen industriarako, eskuzko baliabide eta tresnen bidez, inolako ekipamendu mekanizaturik edo makinari erabili gabe martxan jartzeko.

Beste meatzaritz-modalitate batzuk definitzeko ariketa horiek tituluak formalizatzeko eta lortzeko prozesuak nork hasteko erabakiarekin lotuta daude. 2010. urtetik, bai urte bereko 2715 Dekretuan, bai Meatze Kodearen berrikuntzan (1382 Legea), legezkatze-prozesuak bi baldintza betetzen dituztenek bakarrik has ditzaketela ezarri zen: (i) dokumentazio tekniko eta komertzialaren bidez, gutxienez bost urteko ustiapena egiaztatzen dutenak, eta horrez gain, gutxienez, hamar urte lehenago bazeudela egiaztatzen dutenak, 2010. urtetik zenbatuta. Halaber, 2010eko 1382 Legean, gehieneko formalizazio-mugak ezarri ziren, eta horien ondorioz, titulurik gabeko meatzaritz txikia legez kontrako meatzaritz

gisa hartuko da¹¹. Hala ere, 2016ko apirilaren 20an, Estatu Kontseiluak behin-behinean eten zituen dekretu horren eraginak, jadanik ordenamendu juridikotik kanporatu zuten arautegi baten ondorioen zati bat egiten zuela kontuan hartuz, konstituzioaren kontrakoa zelako: 2010eko 1382 Legea.

Meatzaritz formalizatzeko prozesuen arautegiaren etengabeko gorabehera horiez gain, meatze-jarduerak legezkatu nahi dituzten eragileek beste gauza askori egin behar diete aurre, hala nola zailtasun teknikoei, antolaketa-zailtasunei eta zailtasun logistikoei. Konpontzeko ahalegin batean, Gobernu Nazionalak Meatze eta Energiako Administrazio Sektorearen Dekretu Bakar Arauemailea egin zuen 2015. urtean. Horren xedea da meatze sistema nazional erregulatorioa biltzea eta erraztea, eta kasu honetan, prozedurak, baldintza teknikoak eta omisioak meatzaritz formalizatzeko prozesurako, modu bateratuan. Dena den, legezkatze eta formulazio prozesuak neurri handi batean arrakastatsua dira politika horiek meatzaritz txikiaren berezko behar eta zailtasunetara egokitzen badira. Adierazle garrantzitsua da formalizazio-prozesuak arrakastarekin lortzeko balioetsitako denbora: 3 eta 5 urte artean (Ekonomiako Lankidetz eta Garapenerako Erakundea -ELGE-, 2016). Gaur egun, bere meatze-jarduerak formalizatu nahi duten pertsona natural eta elkarte guztiek, 150 eta 500 hektarea arte hurrenez hurren, zenbait agiri eta plano aurkezteaz gain, meatze-lanak ere egiaztatuta behar dituzte (2015eko 1073 dekretua) eta aldi baterako ingurumen-lizentzia eskuratu behar dute ingurumen-agintarien aurrean behin betikoa izapidetzen duen bitartean (2019ko 1955 Legea).

11 Arau-aurrean berri hauen barruan, 4.000 formalizazio-eskaera inguru jaso ziren herrialde osoan, beraz, 2013ko 933 Dekretua egin zen, besteak beste administrazio-jarduerak, izapideak, alderdi tekniko eta ingurumen alderdiak, jadanik titulua duten eremuetan gatazkak konpontzeko prozesuak, eremu mugatuen definizioa, formalizatu daitezkeen gehieneko eremuak zuzentzeko.

Urrezko meatzearen erregulazioa

2014. urterako, Kolonbia seigarren urre-ekoizlerik handiena zen Latinoamerikan, eta 19.a munduan. Azken hamarkadan erauzketa hirukoiztu zuen, eskala txiki eta ertaineko meatzarien ekintzaren ondorioz nagusiki, proportzio handian meatze-titulurik gabe gartzen dena (ELGE, 2016). 2017. urterako postu bat igo zen maila orokorrean, eta 41 tonako ekoizpena heldu zen. Bestalde, 56,6 tonako esportazioetara heldu zen (Meatzaritzako Agentzia Nazionala -ANM-, 2018b). Urte honetarako, urrezko meatze-tituluak herrialdeko titulu guztien % 22,11 ziren -1.961, 8.866tik-, eta horietatik, 402, % 20,5 gutxi gorabehera, aztertze-etapa batean zeuden, eraikuntzan eta muntaketan, 661, % 33,7, eta ustiapenean, 898, % 45,8 (ANM, 2017).

Gai honen aurrean zehazki, beste esfortzu garrantzitsu bat egin behar izan da urrea eskala txikian eta ertainean erauztearekin lotu-

tako jarduera zehatzak arautzeko. Bi motatako neurriak bultzatu dira merkurioaren erabilerearen aurrean, erauzketa-prozesuan, eta bere trazabilitatea egiteko aukera ematen duten erregistro-prozesuen aurrean. Lehendabizi, Merkurioaren Legearen bidez (2013ko 1658), Gobernu Nazionalak agindu bat eman zuen merkurioa lurralde nazional osoan errotik kentzeko, eta gehienez 10 urteko epea finkatu zuen industria-jardueretarako, eta gehienez, 5 urtekoa, meatzaritzan erabiltzeko. Horretarako, sustatu behar da goi-mailako hezkuntza-erakundeek prestakuntza, ikerketa eta tokiko etorkizuneko jarduerak gara ditzatela, helburu horiek lortzeko. Horretarako, Meatze eta Energia Ministerioak estrategia bat diseinatu behar zuen merkurioaren erabiltzaileen erregistroa bere sektorean sustatzeko. Lege horretan, gehienez, bi urte ezartzen dira merkurioaren inportazioa eta komertzializazioa kontrolatzeko eta murrizteko neurriak sortzeko, baita baimendutako inportatzaile eta komertzializatzaileen Erregistro Bakar Nazional



El Alacrán meatzearen ikuspegia meatze instalazioetatik.

bat sortzeko ere. Horrez gain, Ingurumen eta Garapen Iraunkorreko Ministerioari ere agintzen zaio sei hileko epean *Kolonbiako Ingurumen Meatze Zigilua* sor dezan, horren bidez, merkurioa erabiltzen ez duten meatze-jardueretatik eratorritako produktuak identifikatu daitezela¹².

Bigarrenaz, garapen honen barruan, 2013. urtearen hasieran, gobernuak Merkatarien Erregistro Bakarra -RUCOM- ezarri zuen, eta horren bidez, urrearen hornidura-kateen kontrola eta trazabilitatea hobetu nahi du. Horretarako, helburua da komertzializatzen dutenak, finantza-egoerak, zergak atxikitzeko ziurtagiriak eta jatorrizko ziurtagiriak entregatuz erregistratzea. Hori, legezkotzat hartzen diren meatze-produktuak jasotzen dituztela bermatzeko¹³. Horregatik, kontrol-neurri horien arrakastaren zati handi bat, urre-meatzaritza txikia formalizatzekeo prozesuen arrakastaren mende dago.

Urre-meatzaritza kriminala

Urre-meatzaritza jarduera erakargarria da legez kontrako eragileentzat, bere produktuaren merkataritzak, estatu-ekimenak badaude ere, oraindik kontrol zorrotzik ez duelako, eta erraz gerta daiteke legez kontrako ekonomietatik eratorritako aktiboak garbitzea. Hori dela eta, fenomeno honen funtsezko ezaugarri bat da droga-trafikoaren, legez kontrako taldeen eta urraren erauzketaren eta komertzializazioaren arteko lotura (ELGE, 2016).

12 Zigilu hori 2018ko 2210 ebazpenaren bidez sortu zen. Zigilua borondatezkoa da urre, zilar eta platinu ekoizleentzat.

13 RUCOMek legezkotzat jotzen du hauei erostea: (i) ustiapen etapan dauden meatzari titularrak, (ii) legezkatze programa edo meatze-formalizazio programa eskatzaileak, eskaera horiek ebatzi bitartean; (iii) erreserba bereziko eremuen onuradunak, eskaera horiek ebatzi bitartean; (iv) meatze-formalizazioko azpikontratatik; (v) dagoen alkatetzan izena emandako barekeroak, eta (vi) txatar-biltzaileak (pertsonek naturalak, meatze-ustiapenen hondakinetan metal preziatuak biltzeko eskuzko jarduerak egiten dituztenak) (2015eko 276. dekretua).

Esaterako, azken hamarkadan, azterlan honen eremurako, ustiapen kriminalaren fenomenoak Grupos Armados Posdesmovilización -GAPD- izeneko taldeen jardueraren eragin handia izan du¹⁴. Talde hauek, antzinako tarteko agintari paramilitarrek zuzendutakoek, zenbait aukera berrerabili eta sustatu dituzte, hala nola urre-meatzaritza, zur-kontrabandoa eta merkataritza egindako estortsioa, finantzazio-iturriak bilatzeko (Usaid, Presidencia & CCAI, 2011, p.72). 2013. urterako, koka ereinda zuten eremuak murrizteko joera ibaietatik hurbil urre-erauzketak izandako hazkunderarekin lotuta zegoen (Droga eta Delituaren Aurkako Nazio Batuen Bulegoa -UNODC-, 2013, 73. or.), eta horrez gain, minerala erauzteko draga kopuruak ere gora egin zuen. Bestalde, drogak garraiatzeko ibilbide batzuk meatzaritzan erabiltzen diren ekipamenduak eta makinak inportatzeko erabiltzen ari dira.

Komertzializazio-katearen ikuspegitik, ELGEk (2016) azpimarratu du urre gehiena Kolonbian salerosketa edo komertzializatzaile txikiei saltzen zaiela, udalerrri ekoizleen barruan, eta horiek prezioa ezartzen dutela, nazioarteko kostua eta erregaliak ordaintzeagatik deskontua kontuan hartuz. Gero, urrea, urtzaileei edo nazioarteko merkatariei saltzen zaie. Legez kontrako katea, beraz, narkotrafikoaren diru-sarreretatik etortzen da, makinak eta sargaiak finantzatuko dituztenak urrea erauzteko, eta puntu honetan, salerosketak eta meatzari formalei nahiz informalei urrea erosten dieten komertzializatzaileak ezartzeko. Geroago, galdategiei edo nazioarteko komertzializatzaileei egindako salmentaren bidez, urrea "legeztatzen" da. Komertzializatzaile askok beren lana legearen barruan garatzen ba-

14 Memoria Historikoko Zentro Nazionalaren arabera -CNMH- (2016, 13. or.), Kolonbiako Autodefentsa Batuen -AUC- desmobilizazioaren ondoren sortu ziren talde armatuak dira. Prozesu historiko zabalago baten ikuspegian, Kolonbiako Estatuaren konfigurazio bereziarekin eta indarraren erabilera pribatua eta partikularren segurtasuna hornitzea sustatu zuten erakunde diseinuen lotura dago, legez kontrako ekonomia eta ekonomia informalak jarraitzearekin batera, batik bat eskualde esparruetan, [askotan], erkidegoak eta tokiko biztanleak integratzeko bide bakarra izateaz gain, nolabaiteko erregulazio pribatua eskatzen dutenak.

dute ere, ahulak dira, nahita edo ez, eta aktiboak garbitzen dituzte. Eskudirutan edo hornidura edo sargaien truke egindako transakzioak, eta legez kontrako jatorria duen urrearen komertzializazioa eta garraioa delitu txikia izateak, dirua (edota aktiboak) garbitzeko prozesuaren azterketa zailtzen dute.

Fenomeno hori, errealitate sakonago baten adierazpena baino ez da, ekonomia informalean eta legez kontrakoan hazkundera eta finkatzea, izan ere, herrialdean, lehen mailako sektorean eta zerbitzuen sektorean egindako finantza-transakzioen erdia, inolako agiririk gabe egiten da. Kasu honetan, garrantzitsua da kontuan hartzea laurogeiko hamarkadatik erakunde kriminalek zenbait mekanismo ezarri dituztela legez kontrako ekonomietatik etorritako diruak zuritzeko¹⁵. Berriki Kolonbiako Estatuak zenbait estrategia egin bazituen ere urrearen hornidura eta merkataritza kateak ezartzeko, hala nola RUCOM-en txertatzea, oraindik zailtasun handiek jarraitzen dute fenomeno hori kontrolatzeko, azken 10 urteetan % 135 baino gehiago handitu delako. Izan ere, legez kontrako meatzaritzak urtero 2.000 eta 3.000 milioi dolar inguru ekoiztera hel daiteke (ELGE, 2016).

Talde etnikoen eskubideak eta meatze-erazketa

Talde etnikoei dagokienez, Meatze Kodeak parte hartzeko eskubidea aitortzen du, egindako ustiatze eta aztertze proposamenen aurrean, eta lehentasuna ematen die beren lurraldeetan meatze-tituluak entregatzeko, betiere jarduera hori pribilegiatzen badute. Bestela, Estatuak interes publikotzat har ditzake eta partikularrei eman. Hori eragozpen bat da beste mota bateko

jarduerak pribilegiatzen dituen erkidegoko erabaki bat hartzeko aukerari begira (Martínez; Peña; Calle & Velásquez, 2013, 13. or.).

Beren lurraldeetan meatze-proiektuak garatzearen aurrean, Meatze Kodeak bere gain hartzen dituena Lanaren Nazioarteko Erakundearen -OIT- 169. hitzarmenean oinarrituz, hots, tradizioz okupatzen dituzten lurrak (123. artikulua), aurretiko kontsulta tresna nagusia da talde etnikoen parte hartzeko eskubidea babesteko. Eskubide honen bidez, erkidegoei kontsultatu ahal zaie lege eta administrazio arloko neurriak hartu nahi direnean, hala nola proiektu, obra eta bestelako jardueretan, lurraldeetan zuzenean edo zeharka eragiten dutenak. Mekanismo hori komunitate horien integritate kultural, sozial eta ekonomikoa eta parte hartzeko eskubidea babesteko helburuarekin egiten da, baina gobernu-sektoreek eta sektore pribatuak irakurri dute, erazketa- eta azpiegitura-proiektuak garatzeko oztopo gisa. Meatze-ustiapenaren arloan, Konstituzio Auzitegiak zenbait epairen bidez erabaki du eskubide hori nola interpretatu behar den:

1. Meatze-arazo guztietan, talde etnikoen partaidetza- eta aurretiazko kontsulta-eskubideak errespetatu behar dira beti. Horrek, erazketa-proiektu baten ustiapen- eta aztertze-faseak barne hartzen ditu, baina baita etorkizunean komunitate indigenei eta afrikar ondorengoei zuzenean eragiteko aukera barne hartzen duen neurri oren aurrean ere.

2. Meatzaritza-agintaritzaren betebeharra da meatzaritza-eremu indigenen mugaketan eta meatzaritza-titulu oren emakidan edo zuzeneko lotura eragin dezakeen parte-hartze erreal, ordezkagarri, aske, alde aurreko, informatu eta eraginkorrerako instantzia bermatzea (Konstituzio Auzitegia, 2017a).

3. Beren eskubideei zuzenean eragiten dieten erabakiak erkidegoen alde aurreko adostasun aske eta informatua lortzean bakarrik ezar daitezke, eta baimen hori, nolana ere, ezin da interpretatu beto-ahal gisa (Konstituzio Auzitegia, 2016).

¹⁵ Izan ere, ELGEren arabera (2016), 2014. urterako "agintarien balioespenen arabera, diru zuriketarik etorritako diru-sarrerak 10.000 milioi dolarrekoak izan ziren urtean, beraz, Kolonbiako BPGren ia % 3a. Tradizioz, erakunde kriminalek beren aktiboak zuritu dituzte, finantza-sistemaren edo ekonomia errealearen bidez".

Hala ere, eta eskubide hori bermatzen duten Auzitegi Konstituzionalaren epaiak gorabehera, Aurretiazko Kontsultaren garapenak kritika ugari jaso ditu, behar bezala inplementatuz gero ere, eta ez da horrelakorik gertatzen. Kritiken multzo on batek dio eskubide hori funtzionalagoa dela kapitalaren garapenerako, giza eskubideen bermerako baino: Alde batetik, helburua da erkidegoek gobernuekin eta enpresekin negoziatzea beren lurraldeen gaineko jabetza-eskubidea, eta, ahal denean, proiektuek ekartzen dituzten onuretan parte hartzeko eta eragindako kalteengatik bidezko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea (Murtzia, 2014, 56. or.); eta, bestetik, informazio-mekanismo gisa garatzen denez, eta ez erabakiak hartzeko mekanismo gisa, eta Estatuak eta enpresek erabat kontrolatzen dutenez, despolitizatu egiten dira eskariak. Komunitateak eta autodeterminazio eskubidea (Ulloa, 2014, 443. or.). Azkenik, eskubide hori gauzatzeko unean aurkeztu den arazo bat proiektuaren zuzeneko eragin-eremua zehaztean datza, eta, beraz, desberdintasun nabarmenak daude erkidegoek uste dutenaren eta enpresek edo Estatuak estimatutako eremuaren artean (Rodríguez, 2008, 12-13 or.).

Kordobako Hegoaldeko lurralde testuinguru laburra

Kordoba lurraren jabetzaren kontzentrazio handia duen departamentua da, batez ere abeltzaintza lanetan aritzen dena. Bere historian zehar, jabetza horien finkatzearen ondorioz, eskualdea herrialdeko biolentoenetako bat bihurtu da. Lurralde edukitzeko eztabaidak, jabetza handi horien zerbitzura zeuden talde armatu paramilitarrak sortzea eta finkatzea ekarri zuen. Horiek, lotura handiak zituzten bai eskualdeko elite sozial eta politikoarekin, bai talde narkotrafikatzaileekin, izan ere, latifundio handi horiek edukitzean eta kontrolatzean, aukera ona izango zuten kokaina eta armak gisako legez kontrako salgaiak itsasorantz segurtasunez igarotzeko (Aponete, 2014, 97. or.).

Departamentuaren hegoaldearen eta iparraldearen arteko aldea da hegoaldean baso-

